


BALOREZKO PROPOSAMENA


Atal honetan gure zerbitzua definituko dugu eta bertan sarrera txiki bat ere egingo dugu, gure zerbitzua nolakoa izango den argitzeko. Gure zerbitzua energia ekoizteko gimnasioa izango da. Energia honek, herriko zerbitzuetan mesedea egingo du, energiako kostuak murriztea lortuko duelako. Honek bizikletak, korrika egiteko zinta, eliptika, arraun-makina, indarra lantzeko makinak eta materiala (pesak, gomak...) izango ditu.

Zumarragan kokatuta egongo denez gure gimnasia Zumarraga eta Urretxuko herritarrak etorriko dira. Bi herri hauek dira kokapen egokienak, izan ere, biztanleria handiko bi herri baitira. Honela, geroz eta jende gehiago etorriko da eta energian gehiago aurreztuko dugu eta energia bi herrie zuzenduta egongo da.

Energia eolikoan oinarrituko da gimnasioa eta herriak berak ekoizti eta erabiliko du energia hori. Honek helburutzat hilean udalari energiarengatik ordaintzen dugun kostua murriztea da. Adibidez, bizikletan pedaleatuz, airearen bitartez energia kontabilizatzen duen motorra martxan jarriko da, edo pisua lantzerakoan tira egiterakoan motorra martxan jarriko da. Aipaturiko elementu bakoitzak prozesadora bat izango du, gimnasioaren kanpoaldean kokaturik egongo da eta honek bilduko du gimnasioan lortutako energia guztia. Bertan, prozesadoretik ateratzen den energia, zirkuito baten bidez herriko energia generadoreetara joango da eta horrela eremu publikoetako energia bete ahal izango dugu, adibidez, kaleetako farolak, udaletxea, liburutegia...



Bestalde, zerbitzuaren ordutegia goizeko 08:00etatik gaueko 21:00tara izango da, eguerdiko orduak barne. Kuotari dagokionean, bezero bakoitzak 30€ ordaindu beharko ditu hilabetean, baina herriko beste kiroldegietako bazkide badira, ez dute ezer ordaindu behar gure gimnasioan sartu ahal izateko.



Gure lokalak kirola egiteko bi zati handi edukiko ditu. Alde batean makina asko aurki daitezke. Bizikletak, korrika egiteko zintak etab. Eta beste aldean, indarra lantzeko pesak, gomak, gimnasiaorako barrak, pelotak edo esterillak luzaketak, yoga edo beste ariketak egiteko. Beste aldean emakumeentzako eta gizonentzako aldagelak daude. Bertan, komunak, dutxak eta bakoitzaren gauza pertsonalak gordetzeko armairuak ere aurki daitezke. Gimnasioaren beste aldean atsedean gela bat dago. Denbora asko egon bazara kirola egiten, atsedean gelan pixkat deskantsatu daiteke. Bankuak daude eseritzeko eta edari eta kafe makina bat.

Betiko gimnasio bat izango da, aldaketa batekin, izan ere, honekin energia lortuko dugu. Beraz funtzionamendua bera izango da, hau da, erabilterraza izango da, denok baitakigu makina horien erabilera, baina jakingo ez bagenu, bertan irudiak egongo dira erabileraren azalpenekin, eta irudi hauek ulertu ez gero, gure entrenadore pertsonalak prest egongo dira hauen erabilera azaltzeko.



Gimnasio honen onurak herri guztiak nabarituiko ditu, eta gure herrian jende asko gimnasia joaten dela aprobetxatuz, gure herriko gastu publikoak murriztera eramango gaitu. Gainera, honen beste helburu bat ere jendearen osasunean eragitea da. Kirola egitean osasuntsu mantendu gaitezke eta bezeroen helburu fisikoak eta pertsonalak lortzeko ere badakar. Honetaz aparte, ideia honek jende gehiago erakarri dezake.

Gure asmo eta ideia bera erdiesteko helburu duen beste gimnasioa bat ere badago Espainian, hain zuzen ere Madrilan. Hala ere, guk eskeintzen dugun gimnasioak makina eta material gehiago ditu, eta horrela ariketa fisiko gehiago egin eta energia gehiago sortu daiteke. Madrileko gimnasioan sortzen den energia gimnasioarentzako da, horrela bertako gastuak murrizten dituztelako. Gure gimnasioan berriz, lortutako energia herrian gastatzen den energia ordezkatzeko da, horrela herritarren gastuak murrizten ditugu, onura denentzako lortuz.

Laguntza pertsonala izateko aukera ere edukiko dute gure bezeroek nahi izanez gero. Bertako entrenatzaileak laguntza dedikatua emango diete kirolariei, entrenamendu konpletuago eta pertsonalizatu bat eskainiz. Gure entrenatzaileek, kirola egiteko laguntza eskeintzeaz aparte, energia ahalik eta gehien lortzeko pautak ere emango dituzte.

Urretxu Zumarragako herritarrek kirola egiteko aukera izango dute herriari lagunduz eta honi esker motibatuagoak sentitu daitezke, beraien helburuak lortuz entrenatzaile pertsonalarekin eta denbora berdinean energia sortuz. Zergak ere jaitسي daitezke eta energia merkeagoa bilakatuko da.

